

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URKABUSTAIZKO UDALA

Jarduera Ekonomikoen Gaineko 2019ko zerga ordaintzeko epearen hasiera

Xabier Álvarez de Arcaya Fernández de Landa, Urkabustaizko (Araba) udalerriko alkatea naizen honek, jakinarazten dut:

2019ko azaroaren 20tik 2020ko urtarrilaren 20ra bitarteko egun baliodunetan, biak barne, ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, ondoren adierazten den zergaren 2019ko ordainagiriak:

Jarduera ekonomikoen gaineko zerga

1. Ordaintzeko epea:

Borondatezko epea: 2019ko azaroaren 20tik 2020ko urtarrilaren 20ra bitartean. Helbideratuta dauden ordainagiriak kobratzera pasatuko dira 2019ko abenduaren 20an.

Premiamendu aldia: epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bideari emango zaio hasiera, hala xedatzen baitute otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren, Arabako zergenaren, 28. artikulua eta Dirubilketaren Arautegiak, dagokion errekarguarekin kobratuko dira ordaindu gabeko kuotak.

2. Ordaintzeko lekua eta modua:

Ordainketa helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko baldin eta zerga aurreko urteetako banku kontu berebean helbideratuta badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

Ordainketa bankuan helbideratuta ez dutenek borondatezko epean soilik ordaindu ahalko dute, Kutxabankeko bulegoetan.

Zergadunei ohartarazten zaie komenigarria dela beren zerga zorrak banketxe edo kutxetan helbideratuta izatea. Halaber, nola banku helbideratzeetako altak edo aldaketak, hala gerora jakinarazpenak egiteko helbide aldaketak, Urkabustaizko Udalean izapidetu beharko dira.

Argitaratu egiten da, guztiek jakin dezaten.

Izarra, 2019ko urriaren 25a

Alkate-Lehendakaria

XABIER ÁLVAREZ DE ARCAJA FERNÁNDEZ DE LANDA